

askotariko

plural

anitz

askotariko

Aurreko astean landu genuen hitz hori.

Ikus

askotariko-I

(2008-11-4)

plural

Hiztegi batuak **plural** sarrera dakar, inolako oharrik edo argibiderik gabe. Berez, gramatika-alorreko hitza dugu; eta nazioartekoa.

Maiz erabiltzen da politika arloko hitzen izenondo gisa.

Hortaz, lasai asko erabil dezakegu **plural** izenondoa, hauen moduko adibideetan:

Gizarte plurala

Demokrazia plurala

Ezker plurala

anitz

Zenbatzaile zehaztugabea da **anitz**. Batez ere Iparraldean erabiltzen da, eta hizkuntza-maila jasoan.

anitz = asko

Izen multzoaren aurrean agertzen da gehienetan. Baina atzean ere jar daiteke:

- **anitz iritzi, anitz tokitan...**
- **lan anitz, etxe anitzetan...**

anitz = oso, txit

- **Anitz** ederki mintzatzen da jendaurrean.
- Pago ezkurraren olio **anitz** ona da.

Horrenbestez, hona bi adibide egoki, eta beste bat desegokia:

Egungo gizartea askotarikoa da

Egungo gizartea plurala da

*Egungo gizartea anitza da
(= *askoa)

Hona, adibide gehiago:

Eskola-porrotaren zioak **asko/anitz/askotarikoak** dira.

*Eskola-porrotaren zioak **anitzak** dira.

Esatariak isiltasun-une bat sortu behar du zerbait adierazteko (...) Isiltasuna **era askotan** erabiltzen da / Isiltasunaren erabilera **askotarikoa** da.

*...Isiltasunaren erabilera **anitza** da.

Askotariko industria

*Industria **anitza**

